

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

12481 7/2013 Lege Organikoa, azaroaren 28koa, Murtziako Eskualdeko Autonomia Estatutuaren ekainaren 9ko 4/1982 Lege Organikoa erreformatzekoa.

JUAN CARLOS

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusi eta aditzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek ondoko lege hau onetsi dutela, eta Nik, hemen, berretsi egiten dudala.

HITZAURREA

Lege-dekretua lege-indarra eta behin-behineko irismena dituen arau-xedapena da; Gobernuak urgentziako kasuetan onartzen du eta, ordenamendu juridikoan behin betiko eta era iraunkorrean sartzeko, Parlamentuak berretsi behar du.

Institutu hori 1978ko Espainiako Konstituzioan araututa dago eta Gobernuak gaitzen du urgentziatzeko beharra den kasuetan lege-dekretuak emateko. Lege-dekretuek badituzte zenbait muga material eta formal, eta horiek onartzeko eta ondoren baliozkotzeko pauso jakin batzuk eman behar dira, Parlamentuan eztabaidatu eta bozkatu behar dira.

Estatutuen azken aldaketan ondoren, lege-dekretua jada ez da Estatuko jatorri eta egituraketako lege-indarreko xedapena, orain autonomia-erkidegoetako Zuzenbideko iturri ere bai baita.

Lege honen xede bakarra da Murtziako Eskualdeko Autonomia Estatutuaren ekainaren 9ko 4/1982 Lege Organikoaren 30. artikuluan beste puntu bat sartzea, eskualdeko gobernuari gaitasuna emateko behin-behineko legegintza-xedapenak eman ditzan lege-dekretu gisa; halaber, muga materialak eta Eskualdeko Batzarrak baliozkotzeko izapideak ere ezartzen ditu.

Lege honek artikulua bakarra eta azken xedapena ditu, eta artikulua bakar horretan biltzen dira egindako aldaketak.

Artikulu bakarra. *Murtziako Eskualdeko Autonomia Estatutuaren ekainaren 9ko 4/1982 Lege Organikoa aldatzea.*

Murtziako Eskualdeko Autonomia Estatutuaren ekainaren 9ko 4/1982 Lege Organikoa aldatzen da, honela:

Hona nola geratzen den idatzita 30. artikulua:

«1. 23. artikuluan aitortutako ahalmenak baliatzeko ekimena Biltzarreko kideei eta Gobernu Kontseiluari dagokie. Biltzarraren lege bidez arautuko da udalerrien eta eskualdeen ekimena, kide anitzeko ordezkari-organoen bidez, bai eta herri-ekimena ere, Estatuko legerian xedatutakoaren arabera.

2. Biltzarrak onartutako legeak onarpenaren ondorengo hamabost eguneko epean aldarrikatuko ditu autonomia-erkidegoko presidentek, Erregearen izenean, eta aginduko du berehala argitaratzeko Murtziako Eskualdeko Aldizkari Ofizialean. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko, lege orokorretan ezarritakoa beteko da. Indarraldiari dagokionez, Murtziako Eskualdeko Aldizkari Ofizialean argitaratutako data hartuko da kontuan.

3. Ezohiko eta urgentziatzeko premiaren kasuan, Gobernu Kontseiluak eman ahal izango ditu legegintzako xedapen horiek, lege-dekretu gisa. Ezin izango dira

lege-dekretuan arautu estatutu honetan aurreikusitako eskubideak, hauteskunde-erregimena, Murtziako Eskualdeko erakundeak edo autonomia-erkidegoaren aurrekontua.

Aldarrikatzen direnetik hogeita hamar eguneko epean baliozkotu edo indargabetu beharko ditu Eskualdeko Biltzarrak lege-dekretuak, eztabaidatu eta osoko bozketa egin ondoren.

Baliozkotzea alde batera utzita, Eskualdeko Biltzarrak lege-dekretuak lege-proiektu gisa izapidetzeko aukera izango du, erabakia aurreko paragrafoan ezarritako epean hartzen badu.»

Azken xedapena.

Autonomia-estatutuaren aldaketa hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Beraz,

Lege organiko hau bete eta betearaz dezaten agintzen diet Espainiako herritar eta agintari guztiei.

Madril, 2013ko azaroaren 28a.

JUAN CARLOS E.

Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY